



EBAZPENA, 2013ko azaroaren 14koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, Toponimiako Batzorde-atal Bereziko hainbat kideren kargu-uzteak eta beste hainbat kideren izendapenak egiteko.

Euskararen Aholku Batzordearen urriaren 16ko 176/2007 Dekretuak euskararen alorrean administrazioaren aholkulari den organo horren araubide juridikoa finkatzen du eta, besteak beste, horren osacera zehazten du.

Aipatu 176/2007 Dekretuaren hamabosgarren artikulua Toponimiako Batzorde-atal Bereziaren osacera eta iraupena arautzen ditu. Horren arabera, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak izendatuko ditu dekretuaren 15.1 artikuluko c) idazatian aipatzen diren kideak, eta Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoko kideekin batera utziko dute kargua, haien kargualdia bukatzean. Hauek dira Dekretuan aipatzen diren kideak:

- Eusko Jaurlaritzan kartografiaren gaiaren gaineko eskumena duen sailak proposatutako ordezkari bat.
- Eusko Jaurlaritzan toki-administrazioaren araubidearen gaiaren gaineko eskumena duen sailak proposatutako ordezkari bat.
- Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako foru-aldundietako ordezkari bana.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Udalen elkarteak (EUDELEk) proposatutako eta izendatutako ordezkari bat.

Horrela, 2011ko otsailaren 21eko Hizkuntza Politikarako sailburuordearen Ebazpenaren bidez, Toponimiako Batzorde-atal Bereziko kideak izendatu ziren.

Geroztik, aipatu erakunde horiek euren ordezkarien aldaketak eta ordezkari berrien izenak jakinari dituztenez gero, 176/2007 Dekretuaren 15.2 artikulua xedatutakoarekin bat etorritik, erakunde horietako ordezkarien kargu-uzteak eta ordezkari berrien izendapenak egin behar dira.

Horrez gain, kontuan izan behar da euskararen eta toponimiaren arloan ospe aitortua duten pertsonen artean izendatutako kideetako batek ere bere kargua uzteko eskaera egin duela.

Beraz, aipaturiko dekretu horren 15.2 artikulua ematen didan ahalmenaren indarrez, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Egindako lanagatik eskerrak emanez, honako kide hauek Toponimiako Batzorde-atal Berezia uztea:

- Alfonso Sanz Araujo jaunak, Eusko Jaurlaritzan kartografiaren gaiaren gaineko eskumena duen saileko ordezkariak.

- Jose Ignacio Pariente de Prada jaunak, Eusko Jaurlaritzan toki-administrazioaren araubidearen gaiaren gaineko eskumena duen saileko ordezkariak.
- Román Berriozabal Azpitarte jaunak, Arabako Foru Aldundiko ordezkariak.
- M^a Luisa Etxeberria Rekondo andreak, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak.
- Iratxe Lasa Arana andreak, Euskal Autonomia Erkidegoko Udalen elkarteko ordezkariak.
- Horiez gain, eta berak eskatuta, Joseba Erkizia Itoitz jaunak.

Bigarrena.- Euskararen Aholku Batzordearen Toponimiako Batzorde-atal bereziko kide izendatzea honako hauek:


- Elena Lete García andrea, Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren zuzendaria, Eusko Jaurlaritzan kartografiaren gaiaren gaineko eskumena duen saileko ordezkaria.
- Elixabete Etxanobe Landajuela andrea, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendaria, Eusko Jaurlaritzan toki-administrazioaren araubidearen gaiaren gaineko eskumena duen saileko ordezkaria.
- Jokin Larrañaga Larrañaga jauna, Arabako Foru Aldundiko ordezkaria.
- Xabier Andonegi Santamaria jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkaria.
- Felix Mugurutza Montalban jauna, Euskal Autonomia Erkidegoko Udalen elkarteko ordezkaria.

Hirugarrena.- Honako kide hau karguan berrestea, Bizkaiko Foru Aldundiaren proposamenez:

- Joseba Urzelai Agirre jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkaria.

Laugarrena.- Ebazpen honek izenpetzen den unetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko azaroaren 14a.


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, ENBETASUN
ETA KULTURAREN
Hizkuntza Poli
DEPARTAMENTU
POLITIKO LIN
PATXI BAZTARRIKA GALPARSORO
Hizkuntza Politikarako sailburuordea